



# Haurreskolak Partzuergoko langileen eskuliburua

Haurreskolak Partzuergoko  
Lan Hitzarmeneko  
eta Hezitzaile Ordezkoen  
Araudiko artikulu nagusien bilduma  
2024an argitaratua



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)



## Hurrekolak Partzuergoko langileen eskuliburua

Hurrekolak Partzuergoko Lan Hitzarmeneko eta Hezitzaile  
Ordezkoen Araudiko artikulu nagusien bilduma

2024an argitaratua

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

### Araba

☎ 945 141 104  
araba@steilas.eus

### Bizkaia

☎ 944 100 298  
bizkaia@steilas.eus

### Gipuzkoa

☎ 943 466 000  
gipuzkoa@steilas.eus

### Nafarroa

☎ 948 212 355  
nafarroa@steilas.eus

# Aurkibidea

1. Sarrera .....	4
2. Lan Hitzarmena .....	5
2.1. Odol-ahaidetasunaren organigrama .....	5
2.2. Lizentziak eta baimenak .....	5
2.3. Atxikipenak (13. artikulua) .....	14
2.4. Kontratu motak .....	15
2.5. Ordainsari gordinen taula eta nomina ereduak .....	16
2.6. Ikasturteko lanorduen banaketa ofiziala .....	17
2.7. Lan istripuak, gaixotasun profesionalak eta Mutualiako prestazioak .....	17
3. Ordezkoen Araudia .....	20
3.1. Baremazio/birbaremazio prozesua .....	20
3.2. Zerrendetako hautagaien egoerak (Ordezkoen Araudiko 5.1. artikulua) .....	21
3.3. Ordezkapenei uko egiteko arrazoi justifikatuak (Ordezkoen Araudiko 5.3. artikulua) .....	21
3.4. Hautagaiak ez deituak izateko arrazoiak (Ordezkoen Araudiko 5.6. artikulua) .....	23
3.5. Ordezkapenen kasuistika: ordezkapenak betetzeko irizpideen laburpena (Ordezkoen Araudiko 6. artikulua) .....	23
3.6. Neurri onuragarria (Ordezkoen Araudiko 7. artikulua) .....	24
3.7. Langabeziaren prestazioa .....	25
4. Eranskinak .....	26
4.1. QR kodeak .....	26
4.2. Eskainitako lan kontratuari ukoa .....	27
4.3. Indarrean dagoen lan kontratuari ukoa .....	28
4.4. 01OP eskaera-orria .....	29

## 1. Sarrera

Esku artean duzun eskuliburu honen helburua Haurreskolak Partzuergoko langileok izan ohi ditugun zalantza nagusienak argitzen laguntzea da. Horretarako, besteak beste, Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmeneko eta Ordezkoen Araudiko artikuluko nagusienak bildu ditugu dokumentu bakarrean.

Era berean, ikusiko duzun bezala, QR kode eta hiperesteka ezberdinak sortu ditugu araudi horiek beraien osotasunean kontsultatu ahal izateko. Haurreskolak Partzuergoko edota **STEILAS** sindikatuaren web gunera bideratuko zaituzten kodeak ere badituzu zure eskura, dokumentu hau osatzen duen informazioan gehiago sakondu ahal izateko.

Erabilgarria izango zaizulakoan, jaso agur bat.

**STEILAS** sindikatuko Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile taldea.

Gidaliburu honetan aurkituko duzun informazioa osatzeko dagokion dokumentura jotzea gomendatzen dizugu:

- Ordezkoen Araudia.
- Lan Hitzarmena.



HAURRESKOLAK ERE,  
HEZKUNTZAREN BARNE!

GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAI!

### STEILAS sindikatuko web guneak

Orokorra



Haurreskolak Partzuergoko atala



Afilia zaitetz!



## 2. Lan Hitzarmena



### 2.1. Odol-ahaidetasunaren organigrama

Odol-ahaidetasunaren organigrama	
1. mailakoak	2. mailakoak
Bikotekidea Gurasoak Seme-alabak Aitagarreba/Amagarreba	Neba-arrebak Bilobak Aiton-amonak Koinatu-koinatak
3. mailakoak	4. mailakoak
Osaba-izebak Ilobak	Lehengusu-lehengusinak

### 2.2. Lizentziak eta baimenak

#### 2.2.1. Txanda egunak (21. artikulua)

Ikasturtean zehar (eta haurreskolako egutegiaren arabera) hezitzailea lanera joan den (kontratuaren arabera joango den) **LANEGUNAK** zenbatu eta zati 105 egin:

Eraitza 0.5 eta 1.49 bada: Txanda egun bat.

Eraitza 1.5 edo gehiago bada: 2 txanda egun.

\* **Lan Hitzarmeneko 13. artikulua** arabera egun libreak gehituko dira, baldin eta:

*"Premiazko arrazoiengatik edo zerbitzuaren ezinbesteko premiagatik denbora laburragoan egin behar bada (atxikipena aldatzea/mugimendua), gutxienez 2 laneguneko aurrerapenez jakinaraziko zaie eraginpeko langileei, bai beren posta pertsonalera, Haurreskolak Partzuergoari eman bazaio, bai ikastetxeari nolahi ere".*

Aurreabisu hori betetzen ez bada, **2 egun libre** emanda konpentsatuko zaie, eta enpresarekin adostuta baliatuko dituzte.

### 2.2.2. Haurdunaldiगतिको prestazioa/baja

Haurdunaldiगतिकo prestazioa/baja	
Mutua	Gizarte Segurantzaz
Haurdunaldiगतिकo prestazioa	Gaixotasun arruntगतिकo baja
<p><b>Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzutik izapidetzen da:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jarri mediku txanda eskatzeko eta dokumentazioa osatzen joateko (hasiera data langile bakoitzaren kasuistika ezberdinen arabera ezarriko da).</li> </ul> <p>Haurreskolak Partzuergoko Jarraibide Orokorren liburuko 4.3. atalean azaltzen dira jarraitu beharreko pausu guztiak.</p>	<p><b>Osakidetzan izapidetzen da:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Familia medikuarekin txanda hartu baja tramitatu ahal izateko.</li> </ul>
<p><b>Prestazioa jasotzen ari denari ordezkapena bukatzen zaio:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestazio hori jasotzeari utziko dio.</li> <li>- Gizarte Segurantzarekin kontaktuan jarri prestazioa kobratzen jarraitu ahal izateko.</li> </ul>	<p><b>Gizarte Segurantzaz bajaran jasotzen ari denari ordezkapena bukatzen zaio:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bajak irauten duen bitartean kobratzen jarraituko du.</li> </ul>
<p>Kontuan izan behar da <b>norberaren lan egoeraren arabera</b> (kontratu mota) <b>prestazioa edo baja</b> izapidetzea izango dela onuragarriagoa. Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuak edo/eta <b>STEILAS</b> sindikatuak lagundu ahal izango dizu zure egoera argitzen.</p>	
<p>Edozein kasutan, <b>umea jaiotzean ALTA eskatu</b> behar da amatasun lizentzia hasteko.</p>	

### 2.2.3. Amatasuna, gurasotasuna eta edoskitzea (30. eta 31. artikulua)

#### Amatasun eta gurasotasun baimenak

- **18 asteko baimena** hartzeko eskubidea izango dute.
- 2 aste gehiago dagozkie **haur gehigarri** bakoitzeko.
- **2 aste gehiago umeak desgaitasunen** bat izanez gero.

#### Hezkuntza Sailaren oharra



	Ama biologiko, beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa	Nola hartu behar dira asteak?
<b>Nahitaezko zatia</b>	6 aste	Haurra jaiotzen den egunetik edo adopzioa, adopzio aurretiko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen denetik gozatuko da, etenik gabe.
<b>Borondatezko zatia<sup>1</sup></b>	10 aste	Etenik gabe edo zatika hartu daiteke.
<b>Hobetutako zatia<sup>2</sup></b>	2 aste	Etenik gabe hartuko da (salbuespenak).

## <sup>1</sup>Borondatezko zatia bi modutan hartu daiteke

Etenik gabe	Zatika
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aste guztiak jarraian.</li> <li>• Derrigorrez 2 kasu hauetan:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2 gurasotako batek lanik egiten ez badu.</li> <li>- Adopzio, zaintza edo harreretan haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrak 12 hilabete bete arte.</li> <li>• <b>Ama biologikoak:</b> nahi duenean, nahitaezko 6 asteak amaitutakoan.</li> <li>• <b>Beste gurasoak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ama biologikoaren edo beste adoptatzaile-zaintzailearen baimena (aste guztiak) amaitu eta gero.</li> <li>- Ama biologikoak edo adoptatzaile-zaintzaile harrerako gurasoak edoskitze metatua eskatzen badu, hau bukatu eta gero hasiko da gainerako baimen asteen kontaketa.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baimena zatika hartuz gero, <b>asteak osorik</b> hartuko dira. Baimen-zati bakoitza hartzeko <b>aurre-abisu atzeraezina</b> egin beharko da, gutxienez, <b>15 lanegun lehenago</b>.</li> <li>• Baimena zatika hartzea erabakiz gero, <b>ordainketa aste guztiak agortu arte ez da egingo</b> (momentuz, garapen informatikoak egiten ez diren bitartean).</li> </ul>	

## <sup>2</sup>Hobetutako zatia

(Haurreskolak Partzuergoak ematen dituenak)

- Borondatezko zatia bukatzen denean hartu behar da, jarraian eta etenik gabe.
- **Salbuespena:** baimenaren zati hau disfrutatu bitartean kontratua bukatzen bada, hurrengo kontratu(ar)ekin batera berehala jarraituko dute baimenarekin, hau agortu arte (haurrak 12 hilabete bete aurretik).

## Edoskitzea (haurrak urte bat bete arte)

Ez metatua	Metatua
<p><b>Egunero ordu beteko murrizketa</b> laneko ordainsarrietan eraginik izan gabe.</p>	<p><b>Edoskitze metatua:</b> haurrak urte bat bete bitartean amaiera data zehatza duen kontraturik baduzu, orduak metatzea posible da. Zenbat egun dagozkizun jakiteko, zenbatu zenbat <b>lanegun</b> geratzen zaizkizun amatasun bajaren ostean umeak urtea bete bitartean eta zati 6 egun. Eraitza metatu ditzakezun egun kopurua izango da. Kontuan hartu kasu honetan ezin dela adin txikikoen zaintzagatik eszedentzia eskatu umeak urtea bete arte.</p>

**STEILAS**en legeak baliatutako ama biologikoa terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

### 2.2.4. Norbera edo senideak ezkontzeagatik hartutako lizentzia (33. artikulua)

Ezkontza			
Norberarena	Norberaren eta bikotekidearen senideengatik		
20 egutegi egun (ezkontza eguna barne)	1. mailakoak	2. mailakoak	Ospakizuna 150 km baino urrutiago egiten bada
	Ezkontza eguna	Ezkontza eguna	Egutegiko 3 egun (ezkontzakoa barne)

- Ezkontza edo bizikidetza egonkorra dela-eta, **ezin izango da beste lizentzia bat hartu 6 urte igaro arte** eta, inolaz ere ez, bikoteko kideak berberak badira.
- **01PO eredia** bidali beharko da.

### 2.2.5. Senideen gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik lizentzia (34. artikulua)

Senide mota	Heriotza		
	Gertaera non		
	Herri berdinean	Herri ezberdinean baina 150 km baino gutxiago	150 km baino gehiago
Ezkontidea Bikotekidea Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak Aita-amaginarreba	3 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
2. mailako senideak	3 lanegun	4 lanegun	4 lanegun + egun natural 1
Maila urrunagoko senideak elkarrekin biziz gero	3 lanegun	3 lanegun	3 lanegun + 2 egun natural
Bizikideak	EZ	EZ	EZ



## Gaixotasun larria, ospitalizazioa edo etxean atsedean hartzera behartzen duen ospitalizazio gabeko ebakuntza

Senide mota	Gertaera non		
	Herri berdinean	Herri ezberdinean baina 150 km baino gutxiago	150 km baino gehiago
Ezkontidea Bikotekidea Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak Aita-amaginarreba	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
2. mailako senideak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
Maila urrunagoko senideak elkarrekin biziz gero	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
Bizikideak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun

**STEILASEk argitaratutako dokumentua deskargatzeko lotura**



- **Ebakuntza:** mediku ziurtagiriz egiaztatu beharko da.
- **Etxean atsedena hartzea:** ebakuntza mediku ziurtagiria + atsedena justifikatzen duen medikuaren txostena.
- Ingresoagatiko baimena senidea ingresatuta dagoen bitartean hartuko da, eta, baimena amaitu aurretik alta ematen badiote, baimena hor amaituko da (egunak elkarren segidan hartzea ez da derrigorrezkoa).
- **01PO eredu**a bidali behar da.

### 2.2.6. Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia (35. artikulua)

- Behar beste denbora hartu ahal da (lan orduetatik kanpo egin ezin bada).

### 2.2.7. Ohiko etxebizitza aldatzeko lizentzia (36. artikulua)

- **Jarraiak diren 2 lanegun** hartu daitezke (aldaketaren eguna barne).
- Egiaztagarria: errolda-agiria (hartu diren 2 egunetako batek errolda aldaketa gauzatu den egunarekin bat egin behar du).
- **01PO eredu**a bidali beharko da.



## 2.2.8. Adingabekoak, ezgaituak edo odol ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko edota norberaren gaixotasunagatik hartutako baimena (38. eta 59. artikulua)

Lanaldi murrizketak justifikatzen dituzten egoerak			
Arrazoa	Zenbat denbora	Eskaera	Zenbateko murrizketa
Adingabeko zaintzagatik	Gehienez, haurrak 12 urte bete arte	15 egun lehenago	Lanaldi erditik zortziren batera
Senideen zaintzagatik: bigarren mailara arteko senide ezgaituak edota maila urrunagokoak (elkarbizitza egiaztatuz gero)	Gehienez, lizentzia arrazoitzen duen egoera mantentzen den arte	15 egun	
Norberaren gaixotasunagatik	Gehienez, lizentzia arrazoitzen duen egoera mantentzen den arte	15 egun	
Lanaldiaren borondatezko murrizketa (59. artikulua)	Gutxienez, 3 hilabetez	30 egun lehenago	Lanaldi erdia

Lanaldiak					
Zenbateko murrizketa	Murrizketaren portzentaia	Lanaldia	Arreta zuzena	Prestakuntza	Ordainsarien murrizketa
<b>Murrizketarik ez</b>	% 0	7 ordu	6 ordu 15'	45'	Murrizketarik ez
<b>1/8 (52')</b>	% 12,38	6 ordu 8'	5 ordu 29'	39'	Ordainsariak/8
<b>1/7 (ordu 1)</b>	% 14,285	6 ordu	5 ordu 22'	38'	Ordainsariak/7
<b>1/6 (1 ordu 10')</b>	% 16,66	5 ordu 50'	5 ordu 13'	37'	Ordainsariak/6
<b>1/5 (1 ordu 24')</b>	% 20	5 ordu 36'	5 ordu	36'	Ordainsariak/5
<b>1/4 (1 ordu 45')</b>	% 25	5 ordu 15'	4 ordu 41'	34'	Ordainsariak/4
<b>1/3 (2 ordu 20')</b>	% 33,3	4 ordu 40'	4 ordu 10'	30'	Ordainsariak/3
<b>1/2 (3 ordu 30')</b>	% 50	3 ordu 30'	3 ordu 7'	23'	Ordainsariak/2

- Lanaldi osoa eta jarraia duten langileek bazkaltzeko 30 min dituzte (zeharkako arreta).
- Murrizketa horietaz gain, norberak behar duen denbora murriztu dezake (gutxieneko murrizketa lanegunaren zortzirena izango da eta jardun erdikoa gehienez).
- Hezitzaile ordezkoen kasuan lizentziak kontratua hasi eta 5 laneguneko epean eskatu ahalko dira.
- **05PK eredu**a bidali behar da.

### 2.2.9. Norberaren eginkizunetarako baimena (44. artikulua)

Zerbitzu aktiboan urte bete egon den langileak eska dezake (ikasturtean bertan 6 hilabete izan beharko dira)			
Baimen motak	Iraupena		
	Gutxienez	Gehienez	Epea
Norberaren eginkizunetarako baimena	7 egutegi egun segidan* <i>*Lana eta familia uztartzeko edo senideen gaixotasun larrien kasuan, 3 egutegi egun segidan</i>	3 hilabete	2 urteko epean
Gobernuz kanpoko erakundeekin garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko	3 hilabete	1 urte	5 urtetik behin
Ikasketa ofizialak egiteko	Lanaldi erdia edo herena murrizteko eskubidea ekar dezake	4 hilabete	Urte batean
Administrazio/erakunde publikoetan hautatze probetara aurkezteko	Behar beste denbora		
Zigor askatasun gabetzaileren bat betetzen ari den odol ahaidetasuneko 2. mailara arteko senideren bati bisita egiteko	Behar beste denbora (lanorduetatik egiterik ez badago)		

- Eskaera 15 egun lehenago egin behar da (ezinbesteko egoerak salbu).
- Kontuan hartu ordainsarrietan proportzionala izango den murrizketa aplikatuko dela.
- **06PK** eredia bidali behar da.

### 2.2.10. Eszedentziak (47. artikulua)

Mota	Denbora tartea	Lanpostuaren erreserba	Antzintasuna
<b>Zaintzak</b>			
Seme-alabena	Eskatzaileak nahi duena txikiak 3 urte bete arte	BAI	BAI
Ahaideak (odol edo ezkontza 2. mailara artekoak)	Gehienez 2 urte	BAI	BAI
<b>Nahitaezkoa</b>			
Kargu publiko baterako hautagai izatea	Eszedentzia arrazoitu duen egoerak irauten duen bitartean*	BAI	BAI
Eginkizun sindikalak betetzea			
Askatasuna galdu eta epai irmoa jaso arte			
<b>Borondatezkoa</b>			
Enpresan urte beteko antzintasuna bete duen langileak eska dezake	4 hilabete gutxienez eta 5 urte gehienez	**	EZ
<b>Bateraezintasunagatikoak (langile finkoak)</b>			
Administrazio publiko baten lan eskaintza betetzera joateko	Lan eskaintza berria indarrean dagoen bitartean*	EZ	EZ

\* Nahitaezko edo bateraezintasunagatiko eszedentzia eskatu duen langileak eszedentzia arrazoitu zuen egoera bukatu eta 30 eguneko epean eskatu beharko du lanera itzultzea (hala egiten ez badu, behin-betiko baja emango zaio).

\*\* Borondatezko eszedentzia hartu duen langile finkoak berriz lanera itzultzea eskatzen duenean, bere kategorian hutsik geratzen den lehen lanpostua betetzeko eskubidea izango du, edo, bestela, hutsen bat gelditu arte itxaron beharko du.

LEP arteko kontratudun langileen kasuan, berriz, borondatezko eszedentzia hartzeko eskubidea onartzen bazaie ere, aurreko paragrafoa aplikatuko zaie baldin eta eszedentziak irauten duen denboran bere lanpostua ez baldin bada amortizatzen edo behin-behinean edota behin betiko betetzen.

### 2.2.11. 60 urtetik gorakoei zuzeneko arreta denbora murriztea (52. artikulua)

60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriztu dezakete, **egunean 2 orduz**. Denbora hori prestakuntza lanetarako eta haurreskolaren antolaketa orokorreko lanetarako erabiliko da.

## 2.2.12. Baimen hobekuntzak

2023ko ekainaren 29an, BOEn, Langileen Estatutoan eskubideen hobekuntza ezberdinak argitaratu ziren. Hauek 2023-2024 ikasturterako Haurreskolak Partzuergoko Jarraibide Orokorretan txertatu dira:

- **Ezinbesteko arrazoiengatik lanera ez joateko 4 egun:** Ahaideekin edo bizikideekin zerikusia duten premiazko familia-arrazoiak direla-eta ezinbesteko arrazoiengatik lanera ez joateko eskubidea izango du langileak, gaixotasuna edo istripua dela eta berehala joatea ezinbestekoa denean. Absentzia ordu horiek urtean 4 egun baino gehiago ez dira izango, ordaindu behar dira (hitzarmen kolektiboan edo enpresaren eta langileen legezko ordezkartzaren arteko akordioan ezarritakoaren arabera). Absentziaren arrazoia egiaztatu egin behar da.

Lan hitzarmenean txertaturik ez dagoenez, mahai negoziatzailea egiteko eskaera luzatu diogu enpresari hau negoziatzeko, baina momentuz erantzunik ez dugu jaso. Jarraibide liburuak negoziatu arte ez dela aplikatuko adierazten du. Beraz, presioa egiteko beste modu bat, langileak beharra duenean eskaera enpresari luzatzea izan daiteke.

- **Seme-alabak edo harreran hartutako adingabea zaintzeko guraso-baimena:** Gehienez 8 astekoa izango da umeak 8 urte bete arte. Jarraian edo zatika hartu ahal izango da. Jardun partzialean edo osoan hartu ahal izango da eta 15 eguneko aurreabisua errespetatu beharko da (ezinbesteko kasuetan izan ezik). Momentuz, soldatarik gabeko baimena da.

Baimen honen kotizazioaren inguruko segurtasun juridikorik ezean, beharra izanez gero, momentuz norberaren eginkizunetarako baimena hartzea gomendatzen dizuegu (kotizazio minimoa aplikatzen baita).


## 2.3. Atxikipenak (13. artikulua)

Haurreskolak Partzuergoan gauzatzen diren **kontratu guztiek haurreskola bakoitzari lotutako atxikimendu bat dute** (zenbaki-kode bat), kontratu horren titularra haurreskola horren langilea dela adierazten duena: *“Ikastetxe zehatz bakoitzerako atxikipenak egiten dira, zenbait arrazoi edo premiarengatik atxikipen desberdina edo egindako atxikipenetan aldaketak egin behar izatea kaltetu gabe”*.

Hala ere: *“Antolakuntzarekin, premietara egokitzearekin edo zerbitzu-kalitatearekin zerikusia duten arrazoiengatik, atxikipena aldatzeko aukera du zuzendaritzak. Hilabeteko aurreabisu-epea ezarri da”*.

Beraz, atxikimenduetan aldaketak egiteko, hau da, **haurreskola batetik zer pertsona mugituko den jakiteko**, irizpide hauek erabiliko dira:

1. Borondatezko eskaerak.
2. Lan metaketa edota ordezkapen kontratua duten langileak (baldin eta kontratu horiek joango diren ikastetxearen premietara egokitzen badira).
3. LEP arteko kontratua duten langileak.
4. Behin betiko kontratua duten langileak.

Kontratu motaren arabera	Behin-behinean	Behin betiko
Lan metaketak eta ordezkapenak	<b>Mugimenduen bitartez.</b> Enpresak erabakitzen du nora eta noiz mugitu haurreskolen beharren arabera (esleipenean edo ikasturtean zehar).	
LEP artekoak	<b>Mugimenduen bitartez.</b> Enpresak erabakitzen du nora eta noiz mugitu haurreskolen beharren arabera (esleipenean edo ikasturtean zehar). Jatorrizko haurreskolara bueltatzea eskatzen diotenean uko egin dezake.	Lanpostu-zerrendaren arabera bere lanpostua amortizatzen bada, nahitanahiez.
Behin betikoak	<b>1. Mugimenduen bitartez.</b> Enpresak erabakitzen du nora eta noiz mugitu haurreskolen beharren arabera (esleipenean edo ikasturtean zehar). Jatorrizko haurreskolara bueltatzea eskatzen diotenean uko egin dezake. <b>2. Leku-aldatze lehiaketa gauzatu bitartean, esleipen-prozesu publikoan edo telefonoz.</b> - Lanpostu-zerrendaren arabera bere lanpostua amortizatzen bada. - Borondatezko edota bateraezintasunagatiko eszedentziatik bueltatzen denean.	<b>Leku-aldatze lehiaketa bitartez.</b> - Atxikimendua aldatu nahi duelako, borondatez. - Lanpostu-zerrendaren arabera bere lanpostua amortizatzen bada, nahitanahiez. - Borondatezko edota bateraezintasunagatiko eszedentziatik bueltatu ostean, nahitanahiez.
<p>Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmeneko 13. artikuluari buruzko informazio osatua:</p> 		

## 2.4. Kontratu motak

Izaera	Izena	Ezaugarriak	
Lan- legepeko kontratuak dira (kontratu laboralak)	Behin-betiko kontratuak	Sorrera	Behar estrukturalak betetzeko. Haurreskola bati eta, horren barruan, hurrenkera zehatz bati atxikituta daude.
		Iraupena	Mugagabea. Behar estrukturala desagertuko balitz, langileak LAL batean beste atxikimendu bat lortuko luke (dokumentu honetan 14. orrialdean azaltzen den bezala (13. artikulua).
		Banaketa	EPE prozesuen bitartez.
	LEP arteko kontratuak	Sorrera	Behar estrukturalak betetzeko. Haurreskola bati eta, horren barruan, hurrenkera zehatz bati atxikituta daude.
		Iraupena	Behin betiko langile batek plaza bete arte (LAL edo LEP baten bitartez). Enpresak amortizatu arte.
		Banaketa	Kontratu berriak: zerrendaren hurrenkeraren arabera. Kontratu hobekuntzak: zerrendaren hurrenkera jarraituz ordezkapen bat betetzen ari den lehenengo pertsonari eskaintzen zaio, telefonoz (Ordezkoen Araudiko 6.1. puntua).
	Lan metaketak	Sorrera	Matrikulazio igoerak eragindako beharrak betetzeko. Urtarriletik aurrera banatu ohi dira
		Iraupena	Gehienez 6 hilabete ikasturte bakoitzean.
		Banaketa	Telefonoz zerrendaren hurrenkeraren arabera.
	Ordezkapenak	Sorrera	Hezitzaile bat ordezkatu behar denean.
		Iraupena	Lanpostuaren titularra lanera bueltatu arte.
		Banaketa	Telefonoz zerrendaren hurrenkeraren arabera. 10 eguneko lehentasuna ezartzen da (Ordezkoen Araudiko 6.7. puntua).
Errelebo kontratuak	Sorrera	Beste langile batek jubilatu baino lehen lanaldia murriztearen ondorioz sartzten den lan kontratua.	
	Iraupena	Bi urteko iraupena, lanaldi erdian.	
	Banaketa	Telefonoz zerrendaren hurrenkeraren arabera.	

## 2.5. Ordainsari gordinen taula eta nomina eredu

### 2.5.1. Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen ordainsari gordinen taula.

Lanpostua	Soldata	Antzintasuna	Koordinatzaile plusa
Hezitzailea	2.478,32 €	46,35 €	63,89 €

### 2.5.2. Nomina eredu

Haurreskolak Partzuergoaren helbidea eta datuak					Langilearen helbide eta datuak		
Saila	Azpisaila	Antzintasuna kalkulatzeko data	Antzintasuna Partzuergoan	Taldea	Maila	Okupazioa	Kotizazio taldea
<b>Likidazio aldia:</b> Nominari dagokion egun tartea		<b>Egunak:</b> 30			<b>Nomina:</b> Nominari dagokion hilabetea		
<b>Kalkulua</b>		<b>Azalpena</b>			<b>Ordainketak</b>		<b>Kenketak</b>
Hilekoa		Jasotzen dugun diru kopurua			Kontzeptu bakoitzagatik nomina bakoitzean jaso beharreko diru kopurua		Kontzeptu bakoitzagatik nomina bakoitzean zergetan ordaintzen den kopurua
45,21 x (hirurteko kopurua)		Hirurteko bakoitzagatik jasotako diru kopurua bider hirurteko kopurua					
Hilekoa		Arropa					
% 4,7		Langileak Gizarte Segurantzari hainbat kontzeptutan ordaintzen dion kotizazioa					
% 1,65		Langabezia eta P.H.: Langabeziagatik langileak Gizarte Segurantzari ordaintzen dion kotizazioa					
% P.F.E.Z.		Errenta aitopenari dagokion aurrerapena. %a aldatu egingo da langile bakoitzaren egoeraren arabera, baina atxiki beharreko gutxienezkoa % 2koa da.					
% 0,1 M.E Intergeneracional		Pentsioen kostua hainbat langile-belaunaldiren artean banatzea helburu duen zerga da.					
*Baja egoeran egonda kontzeptu hauek gehitzen dira, horrela: Gaixotasuna. Enpresa (%60) Gaixotasunaren osagarria							
Guztira ordaindua	P.E.ren hainbestekoa	Guztira			Ordainketak guztira	Kenketak guztira	
Tarifa oinarria	Oporraldiaren oinarria	Enpresaren kuota oinarria			Garbia pezetetan	Garbia	
Kontingentzia arruntak oinarria	L.I. eta L.G. oinarria	P.F.E.Z. Oinarria					
<b>Enpresaren sinadura</b>			<b>Langilearen sinadura</b>			<b>Non ordaindua (Kontu korrante zenbakia)</b>	
<b>Enpresa kotizazioak:</b> Langile bakoitzagatik enpresak zergetan ordaintzen duena							


**Kontuan hartu beharreko aparteko kobrantzak:**

**Finikitoa:** lan kontratua amaitzean dagokizun diru kopurua.

**Aparteko ordainsaria:** langileak jasotzen duen hileko oinarritzko soldataren ordainsari gehigarria da. Gure kasuan 2 dira eta abenduan eta uztailean jasotzen ditugu.



## 2.6. Ikasturteko lanorduen banaketa ofiziala



**Oharra:** eskema honek ikasturte osoan zehar jardun osoko kontratua duten hezitzaileen egoerari egiten dio erreferentzia.

## 2.7. Lan istripuak, gaixotasun profesionalak eta Mutualiako prestazioak

- **Zer da lan istripu bat?**

- Langilea lanean ari dela jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

- **Laneko istripuen barruan "IN ITINERE" lan istripua:**


- Istripuztat joko da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

- Lantokirako joan-etorrietako edo lanaldi barruko joan-etorrietako istripuak.

- **Gaixotasun profesionala:**

- Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen kasuan, onartuta dugun gaixotasun profesional bakarra NODULUAK dira.

## 2.7.1. Langileen istripu edo gaixotasun profesionalen aurrean nola jokatu



## 2.7.2. Mutualiako prestazioak

Haurdunaldi edota edoskitzaro naturalagatik	Gizarte laguntzak	Gaixotasun larria duten adingabeen zaintza
Haurdunaldiko arriskuekin eta edoskitzaroarekin lotutako prestazioak	Laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondoren izan ditzakegun egoera zailetan Mutualiak eskaintzen dituen laguntzak	Langile bat bere lanaldia murriztera derrigortuta badago gaixotasun larriren bat duen adingabe bat zuzenean eta etengabe zaintzeko, murrizketaren ondoren diru sarreretan izandako galera konpentsatuko dion prestazio ekonomiko hau jaso dezake
	Gizarte Segurantzak ematen dituen prestazio eta kalte-ordainen osagarri	
	Banan-banan aztertzen dira	

Prestazio horien inguruko informazioa jasotzeko telefono eta helbide elektronikoak
<b>Prebentzio Zerbitzua</b>
prebentzioa@haurreskolak.eus ☎ 943 821 496
<b>MUTUALIA</b>
<b>Araba:</b> prestacionesvi@mutualia.es ☎ 945 009 070
<b>Bizkaia:</b> erandioprestaciones@mutualia.es ☎ 944 042 102
<b>Gipuzkoa:</b> prestacioneseconomicasgipuzkoa@mutualia.es ☎ 943 426 500

### 3. Ordezkoen Araudia

#### 3.1. Baremazio/birbaremazio prozesua

- Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile hautagaien zerrendan izena emateko epea.
- Norberaren datuak eguneratzeko epea: datu pertsonalak, jardunaldiak, zonaldeak, titulazioak, lan esperientzia.
- Deialdia [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus) web orrian argitaratzen da.
- Prozesuaren egutegia kontuan hartzea komeni da: behin behineko zerrendak argitaratzen direnean erreklamazioak egiteko beharra egon daiteke. Era berean, behin-betiko zerrendari gorako helegitea jartzeko aukera dago.

**Oharra:** baremazio/birbaremazio prozesuan babestutako egoera batzuk daude (Haurreskolak Partzuergoko Ordezkoen Araudiko 5.5. artikuluan daude jasota).

- Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan izena emateko beharrezko ikasketa-titulua:

Haur-hezkuntzako irakasle-titulua: Gradua edo Diplomatura, Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua edo Hartzaindegietako teknikari espezialista titulua\*.

Euskara titulua: Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C-1 maila, Hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea

Zerrenda puntuaren arabera sailkatzen da. Irizpide garrantzitsuenak (gehiago baremazio araudian [http://www.haurreskolak.eus/adj\\_documentos\\_informacion/708.pdf](http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/708.pdf)):

Ikasketa titulua	Puntuazioa
Irakaslea Haur Hezkuntzan – Diplomatura	1 puntu
Irakaslea Haur Hezkuntzan – Gradua	1 puntu
Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria	1 puntu
Hartzaindegian espezializatutako teknikaria	1 puntu
Gaikuntza Haur Hezkuntzan	1 puntu
Psikologia – Lizentziatura / Gradua	1 puntu
Pedagogia – Lizentziatura / Gradua	1 puntu
Psiko-pedagogia Lizentziatura	1 puntu
Irakasle Diplomaturetan beste espezialitatearen bat <sup>1</sup>	0,5 puntu espezialitateko
Irakaslea Lehen Hezkuntzan – Gradua	0,5 puntu
Haur Hezkuntza edo eta Lehen Hezkuntzako minorrak eta aipamenak <sup>2</sup>	0,5 puntu espezialitateko

Lan esperientzia	Puntuazioa
Haurreskolak Partzuergoan	0,01 eguneko
Baimendutako haur eskoletan edo hartzaindegietan	0,005 eguneko

\* Zerrendetan izena emateko erabilitako tituluagatik ez da goiko taulan agertzen den puntuaziorik gehituko. Titulu horren batz besteko notaren arabera puntuazio bat edo beste jasoko duzu:

9 - 10	1 puntu	7 - 8,999	0,75 puntu	6 - 6,999	0,50 puntu	5 - 5,999	0,25 puntu
--------	---------	-----------	------------	-----------	------------	-----------	------------

1. Atzerriko hizkuntza, Heziketa Berezia, Heziketa fisikoa, Lehen Hezkuntza, Musika Hezkuntza, Entzumena eta Mintzaira.
2. Haur Hezkuntza tailerrak, euskara hezkuntza tresna, atzerriko hizkuntza, heziketa berezia, berrikuntza proiektua, adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez, kulturartekotasuna, hizkuntzen trataera bateratua, irakurzaletasuna eta liburutegia, gorputz hezkuntza, berrikuntza haur hezkuntzako eskolan, musika hezkuntza, hizkuntza aniztasuna eskolan, curriculum eta baliabideak, berrikuntza lehen hezkuntzan.

### 3.2. Zerrendetako hautagaien egoerak (Ordezkoen Araudiko 5.1. artikulua)

- Lanean.
- Lanerako prest.
- Lanerako prest lehentasunarekin.
- Behin behineko baja egoeran egoteko aukera.
- Aldi baterako baja (ikus dokumentu honen 3.3. artikulua).
- Behin-betiko baja.

### 3.3. Ordezkapenei uko egiteko arrazoi justifikatuak (Ordezkoen Araudiko 5.3. artikulua)

- Ondoren aipatzen den arrazoi justifikaturen bat dagoenean baino ezingo du hautagaiak lan eskaintza bati uko egin.
- Hautagaiak **10 laneguneko epea** izango du kontratuei uko egiteko eredia sinatuta eta dagozkion egiaztagiriak aurkezteko.

a.	Aldi baterako ezintasuna.
b.	Aldi baterako ezintasuna, lan istripuagatik edo lanbidezko gaixotasunagatik.
c.	Amatasuna.
d.	Aitatasuna.
e.	Haurra zaintzarako etena.
f.	Bigarren mailako senideak zaintzeko etena.
g.	Senideen ospitalizazioa edo gaixotasun larria edo heriotza.
h.	Sei urte bitartekoen adopzioa edo harrera.
i.	Norberaren ezkontza edo izatezko bikotea.
j.	Askatasun gabetzea.
k.	Lan kontratu bat indarrean izatea.
l.	Hezkuntza Saiak, IVAPek edo beste hezkuntza administrazioak antolatuko ikastaroetan parte hartzea, lanarekin bateraezinak badira.
m.	Ikasketa edo praktika arautuak egiten aritzea.
n.	Hezkuntza sistemarekin lotura duten beka edo laguntzak jasotzea.
ñ.	Atzerrian lanean jardutea, GKE baterako.
o.	Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia.
p.	Azterketa ofizialak egiteko azterketaren egunean.
q.	Lan kontratua indarrean sartu behar den egunean bertan kontsulta, tratamendu edo azterketa medikoa izatea.
r.	Genero indarkeria edo beste indarkeria mota baten biktima izatea.
s.	Eskaintzen den lan kontratua %50 baino txikiagoa bada eta emandako helbidetik haurreskolara 50km baino gehiago baldin badago.
t.	Irailean eta urrian zehar jardun partzialei uko egiteko aukera (ez da azarorarte jardun partzialeko lan eskaintza berririk jasoko).
u.	Ibiltari lan postua.
v.	Goizeko 9:30ak arte, egunean bertan joateko lan eskaintza izanik.
w.	Behin behineko baja (6 hilabete minimo).
x.	Lehentasun irizpideari ukoa.

#### Uko egiteko arrazoi horietako bat erabiliz gero, zer egin behar da?

- Lan eskaintzari uko egiteko ereduak bidali behar da Pertsonal Zerbitzura, beteta eta sinatuta (Ikus dokumentu honen 2. eranskina):
  - Dagokion ziurtagiria bidali (mediku baja, ikasketa ziurtagiria...).
  - Dagokion lurraldearen helbidera bidali (10 laneguneko epean):

[pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus)  
[pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus)  
[pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus)

Gogoratu lan eskaintza bati uko egiteaz gain, indarrean dagoen lan kontratu bati ere uko egin diezaioketela, Ordezkoen Araudiko 5.4. artikuluan jasota dauden terminoetan.

## 3.4. Hautagaiak ez deituak izateko arrazoiak (Ordezkoen Araudiko 5.6. artikulua)

### 3.4.1. Gertakaria gertatu eta bi hilabete naturaletan

1. Epe barruan, arrazoitutako **ukoan adierazitako arrazoiak egiaztatzen ez badira.**
2. Ukoa eragin zuen **arrazoia amaitu** egin dela jakinaraztean, Haurreskolak Partzuergoari **egiaztagiria aurkezten ez bazaio, 10 laneguneko epean.**
3. **Aurkitzeko moduan ez badago.**
  - Telefonoz 3 dei egin ondoren (3 deiak 3 egun desberdinetan egiten dira).
  - SMS bat bidali ondoren.
  - Postaz gutun ziurtatua bidali ondoren.

### 3.4.2. Gertakaria gertatu eta urte natural batean

1. **Adierazitako arrazoiez bestelako arrazoi batengatik uko egiten bada** (5.3. atalean jasotzen direnez bestelako arrazoi bat).
2. **Ordezkapena betetzera agertzen ez bada** eta uko egiteko arrazoia aurkezten ez badu.
3. **Indarrean dagoen kontratu bati uko egiten badio.**

Gogoratu hautagaiak ez deituak izateko arrazoiez gain, zerrendatik kanporatuak izateko arrazoiak ere badaudela, Ordezkoen Araudiko 5.7. artikuluan jasota dauden terminoetan.

## 3.5. Ordezkapenen kasuistika: ordezkapenak betetzeko irizpideen laburpena (Ordezkoen Araudiko 6. artikulua)

### 1. Kontratu hobekuntza:

- Ordezkapen bat betetzen ari den hautagaiari sortu berria den LEP arteko kontratua eskainiko zaio.
- Zerrendaren hurrenkera jarraituko da.
- Eskaintza onartzea borondatezkoa da.

### 2. Ordezkapenak:

- Haurreskolak Partzuergoan lanean dagoen hezitzaile bat ordezkatu behar denean eskaintzen da.
- Indarrean dagoen ordezkoen zerrendara joko da.
- Horrela izan behar den kasuetan, lehentasun irizpidea kontuan hartuko da.

### 3. Lanaldi murriztuko ordezkapenak:

- Haurreskolak Partzuergoan jarduna murriztu duen hezitzaile bat ordezkatu behar denean eskaintzen da.
- Jarduna osatzen joateko aukera dago.
- Horrela izan behar den kasuetan, lehentasun irizpidea kontuan hartuko da.
- Langabeziarekin konpentsatu daiteke.

### 4. Titularra lanaldi murrizketa batekin bueltatzen bada:

- Ordezkoak ordezkapena egiten jarrai dezake (lanaldi murriztua aukeratuta badu).
- Haurreskolaren beharren eta antolakuntzaren arabera gauzatuko da lan eskaintza.

### 5. Lan metaketak:

- Matrikulazio igoerak eragindako kontratuak dira.
- 6 hilabeteko iraupena (gehienez).
- Zerrendaren hurrenkeraren arabera eskaintzen dira.
- Lehentasunik ez zaie aplikatzen.

### 6. Lehentasuna:

Haurreskola batean hautagairen batek **lan metaketa edota ordezkapen bat egin badu** eta 10 egun natural baino lehen ordezkatu den langile hori bera edo haurreskola bereko beste haur hezitzaile bat ordezkatzeko beharra sortzen denean aplikatzen da.

Lan metaketan eta LEP arteko kontratuen kasuan ez da aplikatzen.

## 3.6. Neurri onuragarria (Ordezkoen Araudiko 7. artikulua)

Hautagaiek ikasturtean zehar gutxienez 165 egunez lan eginez gero:

- Aparteko ordainsaria jasotzeko eskubidea izango dute\*.
- Baremazio deialdian 0,31 puntu gehiago lortuko dituzte.

\* Ordainketaren zehaztapenak:

- Iraila-urria bitartean ordainduko da.
- Zenbatekoa altan egondako epeari egotziko zaio (enpresak kalkulatu du).
- Likidazio osagarri baten bidez kotizatuko da.



### 3.7. Langabeziaren prestazioa

Kontratu bat amaitzean edo jardun murriztuan lan egitean, langabezia jasotzeko aukera dago.

Eman beharreko urratsak:

1. Lanbiden izena eman.
2. SEPErekin langabeziaren prestazioa kudeatu.

Lanbide



SEPE



Kontuan hartzekoak:

- Kontratua amaitzen denean, 15 egun naturaleko epean kudeatu behar da.
- Egun horiek noiz hasten diren jakiteko, gozatu gabeko opor egunak kontuan izan behar dira, eta horiek amaitzean, langabezia jasotzeko epea zabaltzen da.
- Gozatu gabeko opor egunen kantitatea lan-bizitzan ikusteko aukera dago.
- Prestazio horiek jasotzeko azken 6 urteetan 360 egun kotizatuta izan behar dituzu.

## 4. Eranskinak

### 4.1. QR kodeak

Ordezkoen  
araudia



Ordezkapenen  
jarraipen taula



Hezigunea



Hezitzaile ordezkoen  
zerrenda orokorra



Hezitzaile ordezkoen  
Arabako zerrenda



Hezitzaile ordezkoen  
Bizkaiko zerrenda



Hezitzaile ordezkoen  
Gipuzkoako zerrenda



Lan eskaintzari uko  
egiteko eredia



Indarrean dagoen  
lan kontratuari uko  
egiteko eredia





## ESKAINITAKO LAN KONTRATUARI UKOA

Idatzi honen bidez nik .....,  
..... N.A.N. zenbakia duenak, gaur eskainitako lan eskaintzari uko egiten diot ondorengo arrazoia ziurtatuz (ordezkoaren araudiaren 5,3 artikuluan araututako arrazoiak): Markatu "X" batekin eta datak zahaztu eta helbidera elektronikoki honetara bidali: [pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus) edo [pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus) edo [pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus)


	NOIZTIK	NORA
<input type="checkbox"/> A) Aldi baterako Ezintasuna.		
<input type="checkbox"/> B) Aldi baterako ezintasuna, lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik.		
<input type="checkbox"/> C) Amatasuna.		
<input type="checkbox"/> D) Aitatasuna.		
<input type="checkbox"/> E) Haurraren zaintzarako aldi baterako etena.		
<input type="checkbox"/> F) Bigarren mailako senitartekoen zaintzarako aldi baterako etena.		
<input type="checkbox"/> G) Senideen gaixotasun larria edo heriotza.		
<input type="checkbox"/> H) Sei urte bitartekoen adopzioa edo etxean hartzea.		
<input type="checkbox"/> I) Norberaren ezkontza edo izateko bikotea.		
<input type="checkbox"/> J) Askatasun gabetzea.		
<input type="checkbox"/> K) Ordezkapena egin behar denean lan kontratu bat indarrean edukitzea.		
<input type="checkbox"/> L) Hezkuntza Sailak, IVAPek edo beste autonomia erkidego batzuetako hezkuntza administrazioak antolatutako ikastaroren batean parte hartzea.		
<input type="checkbox"/> M) Ikasketak edota praktika arautuak egiten aritzea.		
<input type="checkbox"/> N) Hezkuntza sistemarekin lotura duten beka edo laguntzak jasotzea.		
<input type="checkbox"/> Ñ) Atzerrian lanean jardutea GKE baterako.		
<input type="checkbox"/> O) Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia.		
<input type="checkbox"/> P) Azterketa ofizialak egiteko azterketaren egunean.		
<input type="checkbox"/> Q) Kontratua indarrean sartu behar den egunean kontsulta, tratamendu edo eta azterketa medikoa edukitzea.		
<input type="checkbox"/> R) Genero indarkeria edo beste indarkeria mota baten biktima izatea.		
<input type="checkbox"/> *S) Eskainitako lan kontratuaren jarduna % 50a baino txikiagoa bada eta Haurreskolak Partzuegora emandako helbidetik eskainitako haurreskolara 50 km baino gehiago badago.		
<input type="checkbox"/> *T) Iraila eta urria zehar eskainitako jardunaldi partzialeko lan eskaintza bati uko egitea.		
<input type="checkbox"/> *U) Ibiltari lanpostua.		
<input type="checkbox"/> *V) Goizeko 9:30ak arte, egunean bertan lanera joateko lan eskaintza izanik.		
<input type="checkbox"/> W) Behin-behineko baja (gutxienezko iraupena 6 hilabete).		
<input type="checkbox"/> X) Ordezkapena betetzeko lehentasun irizpideari ukoa.		
Oharrak: .....		
.....		
.....		

10 eguneko epea dago alegatutako arrazoia ziurtatzeko

..... (a)n, 20..... (e)ko ..... (aren) .....(a)n

Sinadura

\* Oharra: eredia beteta eta sinatuta Pertsonal Zerbitzuan jasotzea beharrezkoa da hautagaia berriz ere erabilgarri jarri ahal izateko.





## INDARREAN DAGOEN LAN KONTRATUARI UKOA

Idatzi honen bidez nik \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_ N.A.N. zenbakia duenak, indarrean dudan lan kontratuari uko egiten diot, kontratu honekin lan egingo dudan nire azken eguna 201\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ (aren) \_\_\_\_\_(a) izango delarik, ordezkaren araudiaren 5,4 artikuluan araututakoari jarraiki.

(Markatu "X" batekin arrazoia eta data zehaztu eta dagokion helbide elektronikora bidali):

- a) Kurtso hasieran (iraila-urria) LEP arteko kontratua egin behar bada, ordezkapena egiten ari den langileak aukera izango luke indarrean daukan ordezkapen kontratuari uko egiteko. Horretarako, zerrendan dagoen lehenengo ordezkari deituko zaio, hautatutako zonalde eta jarduna egokitzen badira.
- b) Hurrengo ikasturteko irailaren 1ean libre egon ahal izateko, ikasturte bukaeretan LEP arteko eta ordezkapen kontratuei uko egiteko epea irekiko da.  
 Kontratu horiek abuztuaren 31ean amaituko dira baldin eta indarrean dagoen lan kontratuak ez badu lehenagoko amaiera datarik.
- c) Indarrean dauden heren bat baino gutxiagoko kontratuak badira.
- d) Baremazio aldian, behin betiko zerrendak indarrean sartzen direnean, zonaldea eta jarduna aldatzean indarrean duzun lan kontratua ez badago zonalde eta jardun horretan.
- e) Ikasturtean zehar beste administrazio publiko bateko eskaintza onartuz gero. Indarrean dagoen lan kontratuari uko egiteko eredu sinatuta bidali beharkoda.  
 Uko hauek ez dute ordainsarrietan eraginik izango, justifikatuak baitira.

**Oharra: C eta D kasuetan,** Lan hitzarmenak zehazten duenaren arabera, 15. Artikulua: Lana borondatez utzi nahi duten langileek idatziz jakinarazi beharko diote Partzuergoari lana uzteko asmoa, 15 eguneko aurrerapenez. Ez bada aurrez jakinarazteko obligazioa betetzen, soldatatik deskontatuko da aurrez jakinarazi gabeko egunei dagokien zenbatekoa.

[pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus)

[pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus)

[pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus)

\_\_\_\_\_ (a)n, 20 \_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ (aren) \_\_\_\_\_(a)n

Sinadura



<b>01PO</b> <b>ESKAERA-ORRIA / INSTANCIA</b>					
<b>Lehen deitura / Primer Apellido</b>		<b>Bigarren deitura / Segundo apellido</b>		<b>Izena / Nombre</b>	
<b>Kalea / Calle</b>			<b>Zb. / Nº</b>	<b>Solairua / Piso</b>	<b>Telefonoa/Teléfono</b>
<b>P.K. / C.P.</b>	<b>Udalerría / Municipio</b>		<b>Herrialdea / Provincia</b>		<b>N.A.N. / D.N.I.</b>
<b>E-mail:</b>					

### HAURRESKOLAKO DATUAK/DATOS DE LA HAURRESKOLA

<b>Udalerría / Municipio</b>	<b>Haurreskolaren izena / Nombre de la haurreskola</b>
------------------------------	--

<b>Haurraren izen-abizenak / Nombre y apellidos del niño/a</b>	<b>Jaioturtea / Año de nacimiento</b>
--	---------------------------------------

### AZALTZEN DUT / EXPONE:

---

---

---

---

### Honako hau ESKATZEN DUT / SOLICITA:

---

---

---

---

.....(e)ko .....(a)ren.....a  
.....de.....de.....

### Izenpea / Firma


Interesatuari jakinarazten zaio Haurreskolak Partzuergoak haren datu pertsonalak erabiliko dituela partzuergoa osatzen duten udalerrien lurralde eremuan dauden haurreskolak osorik kudeatzeko eta hiru urtetik beherako haurrei asistentzia- eta hezkuntza-arreta emateko, betiere interesatuek horretarako baimena ematen badute, bai eta estatutuetan araututako xede soziala betetzeko aurreikusitako eskumenen garapenari jarraituz ere.

Datuak laga ahalko zaizkie: hezkuntzaren eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren (Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundearen) ebaluazio orokorraren esparruan eskumenak dituzten administrazio publikoei; irudien edukiak argitaratzeko bitartekoetarako eta sare sozialetarako sarbideak dituzten hirugarren pertsonari, betiere horretarako baimena ematen bada; sartzeko baldintzen baremazioaren bidez legitimatutako edozein hirugarren pertsonari; eta adingabeak babesteko ardura duten agintari judizialei eta Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoei. Interesatuak bere datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezabatze eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko eta tratamendu horren aurka egiteko ere. Horrez gain, informazioa osatzeko aukera ere dauka, honako helbide honetara idazki bat bidaliz: Otaola hiribidea,29-Jaizkibel eraik., 1. 20600 – Eibar (Gipuzkoa). Bestela, mezu elektronikoa bat bidali dezake honako helbide honetara: dpo\_dbo@haurreskolak.eus.

Se informa a la persona interesada de que sus datos personales se utilizarán por el Consorcio Haurreskolak para la gestión integral de las Escuelas Infantiles y la atención asistencial y educativa de los menores de tres años en el ámbito territorial de los municipios que componen el Consorcio de acuerdo al consentimiento de las personas interesadas y desarrollo de competencias previstas en objeto social regulado en estatutos.

Los datos personales podrán ser cedidos a Administraciones Públicas con competencia en materia de educación y evaluación general del sistema educativo no universitario (Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa), a terceros con acceso a medios y redes sociales de publicación de contenidos de imágenes de acuerdo al consentimiento, a cualquier tercero legitimado por baremación de condiciones de acceso y Autoridades judiciales y Fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado por protección jurídica del menor. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento así como ampliar información enviando un escrito a la dirección Otaola Hiribidea,29-Jaizkibel eraik., 1. 20600 – Eibar (Gipuzkoa) o al correo electrónico dpo\_dbo@haurreskolak.eus.







**Haurreskolak Partzuergoko**  
Lan Hitzarmeneko eta Hezitzaile Ordezkoen  
Araudiko artikulu nagusien bilduma  
2024an argitaratua

